



INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

Administrazio eta Plangintza
Sailordetza
Industria eta Meategiak Administrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Viceconsejería de Administración y
Planificación
*Dirección de Administración de
Industria y Minas*

**ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK EGITEKO PROZEDURA,
EAEko BIGARREN ETA HIRUGARREN KATEGORIETAKO INSTALAZIO
ERRADIOAKTIBOEI APLIKATU BEHARREKOA**

(P-2-3)

**Berrikuspena: 4
Data: 2002ko apirilaren 15a**

**AURKIBIDEA****Orrialdea**

0.- SARRERA	3
1.- XEDEA	3
2.- APLIKAZIO-EREMUA.....	3
3.- ERREFERENTZIAK.....	3
4.- OHAR TEKNIKOAK	4
5.- INSTALAZIO BERRIRAKO FUNTZIONAMENDU-BAIMENA	6
6.-INSTALAZIOAN ALDAKETAK EGITEA, TITULARRA ALDATZEA EDO	
ERRADIAZIO-ITURRIAREN AKTIBITATEA HANDITZEA	8
7.- INSTALAZIOA ABIAN JAR DAITEKEELA JAKINARAZTEA	8
8.- Txostenak	9
9.- APARTEKO NEURRIAK	9
10.- ITXIERA-ADIERAZPENA	9
11.- TASAK	10
12.- ARAU-HAUSTEAK.....	10

0.- SARRERA

Administrazio-izapideak egiteko prozedura hau bigarren eta hirugarren kategorietako instalazio erradioaktiboei aplikatuko zaie. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak betearazi behar ditu prozedura honetan ezarritako arauak, Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak (SNK) irizpena eman ondoren, eta beste herri administrazio batzuetako erakundeek eskumen zehatzen kalterik gabe.

1.- XEDEA

Prozedura honen bitartez 2. eta 3. kategorietako instalazio erradioaktiboetarako administrazio-baimenen izapideak arautu dira, honakoak direla-eta: instalazio erradioaktiboak kokatu, eraiki eta muntatzeko proiektuak burutzea; ustiatzen ari diren instalazioetan aldaketak egitea; eta horrelako instalazioak ixtea eta eraistea.

2.- APLIKAZIO-EREMUA

Prozedura hau Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren eta hirugarren kategorietako instalazio erradioaktiboei aplikatu behar zaie.

3.- ERREFERENTZIAK

- 25/1964 Legea, apirilaren 29koa, energia nuklearrari buruzkoa (EAO, 64.05.04).
- 1.836/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboei buruzko Araudia onesten duena (EAO, 1999.12.31).
- 15/1980 Legea, apirilaren 22koa, Segurtasun Nuklearraren Kontseilua sortzen duena (EAO, 80.04.25).
- 1.157/1982 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Segurtasun Nuklearraren Kontseiluaren Estatutua onesten duena (EAO, 82.06.07).
- 783/2001 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, Erradiazio Ionizatzaileen ziozko Osasun Babesari buruzko Araudia onesten duena (EAO, 01.07.26).
- 1.493/93 Berriematea, 1993ko ekainaren 8ko Kontseiluarena, Europar Batasunaren barruan substantzia erradioaktiboak herrialde batetik bestera eramateari buruzko EURATOM Araudia dela-eta (EEAO, 02.02.14).
- 1.549/1994 Errege Dekretua, uztailaren 8koa, Estatuko Administrazioak EAeri 2. eta 3. kategorietako instalazio erradioaktiboen arloko eginkizunak intsuldatzeari buruzkoa (EAO, 94.07.22).
- 295/1994 Dekretua, uztailaren 12koa, 2. eta 3. kategorietako instalazio erradioaktiboen arloko eginkizun eta zerbitzuak EAeri intsuldatzeari buruz

Transferentzietarako Batzorde Mistoak 1994ko maiatzaren 31n hartutako erabakia onesten duena.

- 14/99 Legea, Tasei buruzkoa (EAO, 99-05-05).
- Segurtasun Nuklearraren Kontseiluaren segurtasun gidak.

4.- OHAR TEKNIKOAK

4.1. Definizioak

- Instalazio erradioaktiboak:

Hauek joko dira instalazio erradioaktibotzat:

- a) Erradiazio ionizatzaileen iturriren bat duten instalazio guztiak, edozein motatakoak izanda ere.
- b) Erradiazio ionizatzailea sortu eta 5 kV-etik gorako potentzial-diferentziarekin diharduten tresnak.
- c) Gai erradioaktiboak ekoitzi, erabili, eduki, tratatu, maneiatu edo biltegitratzen diren lokal, laborategi, lantegi eta instalazioak, garraiatzen ari diren gai erradioaktiboak aldi baterako gordetzeko erabiltzen direnak izan ezik.

Honakoak ez dira instalazio erradioaktibotzat joko:

- a) Substantzia erradioaktiboak, baldin eta horien aktibitateak, guztira, ez baditu gainditzen abenduaren 3ko 1.836/1999 Errege Dekretuaren I. eranskineko A taulako bigarren zutabearen ageri diren salbuespen-balioak (dekretu hori 1999ko abenduaren 31ko EAOn argitaratu zen, 313 zenbakikoan).
- b) Substantzia erradioaktiboak, baldin eta horien aktibitateak, masa-unitateko, ez baditu gainditzen abenduaren 3ko 1.836/1999 Errege Dekretuaren I. eranskineko A taulako hirugarren zutabearen ageri diren salbuespen-balioak (dekretu hori 1999ko abenduaren 31ko EAOn argitaratu zen, 313 zenbakikoan).
- c) Substantzia erradioaktiboak dituzten tresnak erabiltzea, substantzia erradioaktiboen aktibitateak, guztira edo masa-unitateko, a) eta b) idatz-zatietan aipatu diren balioak gainditzen dituztenean ere, baldin eta Industria eta Energia Ministerioak onetsitako tresna-motak erabiltzen badira, aurrean aipatutako errege dekretuaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera. Gainera, tresna-mota horiek onesteko ebazpenean zehatz azalduta egon behar dira substantzia erradioaktiboak iraizteko baldintzak.
- d) Irudiak bistaratzeko hodi katodikoak eta bestelako tresna elektrikoak erabiltzea, gehienez 30 kV-eko potentzial-diferentziarekin badihardute; eta mikroskopia

elektronikoak erabiltzea, ohiko jardueran sortzen duten erradiazioaren dosia 1 $\mu\text{Sv/h}$ -tik gorakoa ez bada tresnaren gainazal ukigarritik 0,1 m-ko distantziara.

- e) Erradiazio ionizatzaileak igortzen dituzten bestelako tresnak erabiltzea, d) idatzatzen aipatu ez direnak, baldin eta Industria eta Energia Ministerioak onetsitako tresna-motak badira, II. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz.
- f) Baimendutako ebakuazioetatik datozen substantzia erradioaktiboekin kutsatutako materialak, baldin eta Industria eta Energia Ministerioak, SNKren txostena ikusita, substantzia horiek ez direla kontrolpean eduki behar adierazten badu.
- g) Substantzia erradioaktiboen aktibitateak A taulako balioak gainditzen dituen kasuetan ere, Industria eta Energia Ministerioak, SNKren txostena ikusi ondoren, goian aipatutako jarduera horiek salbuetsita daudela adierazi ahal izango du, baldintza hauek betetzen badira:
 - 1. Jardueraren ondorioz edonork urtean ustez har dezakeen dosia 10 μSv edo txikiagoa izatea.
 - 2. Jarduerak dirauen bitartean, benetako dosi kolektiboa, gehienez ere, urteko eta pertsonako 1 Sv izatea; edo erradiazioetarako babes egokia dagoela eta jarduera inolako arriskurik gabe salbuetsi daitekeela iriztea, ebaluazioa egin eta gero.

4.2. Sailkapena

Prozedura honen eraginpeko instalazio erradioaktiboak bi kategoriatan sailkatu dira:

- Bigarren kategoriako instalazio erradioaktiboak:

- a) Nuklido erradioaktiboak erabiltzen edo biltegitratzen diren instalazioak, nuklidoen aktibitatea salbuespen-balioa baino mila aldiz handiagoa denean, gutxienez. Salbuespen-baliozat hartuko dira Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboei buruzko Araudiaren I. eranskineko 3. puntuko A taulako bigarren zutabearen daudenak (1.836/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 313 zenbakiko EAO, 1999-12-31koa).
- b) Isotopoen nahasturak erabiltzen edo biltegitratzen diren instalazioak, isotopo bakoitzaren aktibitatea salbuespen-balioaz zatitu eta zatidura guztiak batuta ateratzen den kopurua mila edo hortik gorakoa bada.
- c) X izpidun aparatuak dituzten instalazioak, aparatu horiek 200 kV-eko gailur-tentsioarekin funtzionatzeko gai badira.
- d) Partikula-azeleragailuak eta neutroi-iturriak erabiltzen diren instalazioak.

- Hirugarren kategoriako instalazio erradioaktiboak:

- a) Nuklido erradioaktiboak erabili edo biltegitratzen diren instalazioak, nuklidoen aktibitatea salbuespen-balioa baino handiagoa eta salbuespen-balioa halako mila baino txikiagoa denean. Salbuespen-balioztat hartuko dira Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboak buruzko Araudiaren I. eranskineko 3. puntuko A taulako bigarren zutabearen daudenak (1.836/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 313 zenbakiko EAO, 1999-12-31koa).
- b) Isotopoen nahasturak erabiltzen edo biltegitratzen diren instalazioak, isotopo bakoitzaren aktibitatea salbuespen-balioaz zatitu eta zatidura guztiak batuta ateratzen den kopurua bat eta mila bitartekoa bada.
- c) X izpidun aparatuak dituzten instalazioak, aparatu horien gailur-tentsioa gehienez 200 kV bada.

4.3. Baimenak

Bigarren eta hirugarren kategorietako instalazio erradioaktiboak zientzian, medikuntzan, nekazaritzan, merkataritzan edo industrian erabili ahal izateko, aurretik instalazio berrirako funtzionamendu-baimena eskuratu beharko da. Beharrezkoak izango dira, halaber, instalazioa eraldatzeko, titularra aldatzeko eta erradiazio-iturria handitzeko baimenak eta itxierari buruzko adierazpena.

5.- INSTALAZIO BERRIRAKO FUNTZIONAMENDU-BAIMENA.

5.1. Baimena eskatzea

Zientzian, medikuntzan, nekazaritzan, merkataritzan edo industrian bigarren eta hirugarren kategorietako instalazio erradioaktiboak erabili aurretik instalazio berrirako funtzionamendu-baimena eskatu behar da.

Horretarako aurkeztu behar diren agiriak egiteko eta bete behar diren baldintzak jakiteko, kontuan har daitezke SNK-k argitaratu dituen gidak.

Eraiketa eta muntaketari ekin aurretik, interesdunak agiri hauen bina ale aurkeztuko ditu Industria eta Meategiak Administrazio Zuzendaritzan (IMAZ), Gasteizko Donostia-San Sebastián kaleko 1.ean (posta kodea: 01010):

- a) Instalazioa deskribatzeko memoria.

Instalazioaren kokaeraren eta zoru, horma, aireztatze-sistema eta antzeko elementu eraikien xehetasunak azalduko dira. Instalazioan erabili nahi diren erradionuklidoak edo erradiazio-iturriak zergatik aukeratu diren azalduko da. Hondakin erradioaktibo solido, likido eta gaseosoak, bai ohiko jardueran sortuko direnak eta bai istripuen ondorioz sortu litezkeenak, sistema egokien bidez kudeatuko direla erakutsiko da, alegia, horretarako kontratuak egingo direla enpresa kudeatzaileekin, edo

hondakinak berriro esportatuko direla edo kudeaketa-motarik egokiena erabiliko dela.

b) Segurtasunari buruzko azterlana.

Instalazioaren ohiko jardunak sor ditzakeen arriskuak eta balizko istripuen ondorioak aztertu eta neurtu egingo dira. Eskatzaileak berak egindako azterlana gorabehera, behar adina datu emango dira instalazioaren arriskuen beste azterketa bat egin ahal izateko.

c) Instalazioaren egiaztapena.

Kasu bakoitzean berariaz aplikatu beharrekoen artean, beti ere, instalazioan egin behar diren saiakuntzen azalpena jasoko da, eta, behar izanez gero, mantentze plana ere bai.

d) Funtzionamenduari buruzko araudia.

Instalazioaren erabilera segurua izatea bermatuko duten lan-metodoak eta manipulazio-arauak aurkeztuko dira. Gainera, jendea erradiazioetatik babesteko erabili beharreko neurriak azalduko dira.

Langileen zerrenda erantsiko da, antolamendua deskribatuko da, eta lanpostu-mota guztietako eginkizunak azalduko dira, hala ohiko zereginak nola larrialdietan egin beharrekoak.

e) Barruko larrialdi-plana.

Plan horretan zehatz azalduko da instalazioaren titularrak zer-nolako neurriak prestatu dituen eta ardurak nola banatu dituen, inoiz istripuren bat gertatzen bada ondorioei egokiro aurre egiteko, instalazioko langileak babesteko eta organo eskudunei berehala istripuaren berri emateko, istripuaren inguruabarren eta eraginaren hasierako ebaluazioa barne dela.

Istripuren bat gertatuz gero instalazioaren kanpoaldean ere babes lanetan laguntzeari begira, titularrak zer-nolako neurriak prestatu dituen azalduko da planean, eta neurri horiek bat etorri behar dute eskudun organoek egindako kanpoko larrialdi-planekin, halakorik egonez gero. Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak hala agintzen duenean egiten dira plan horiek.

f) Itxierari buruzko aurreikuspenak, eta itxieran segurtasun-baldintzak beteko direla ziurtatzeko aurreikusi den diru-hornidura.

5.2. Funtzionamendu-baimena

Industria eta Meategiak Administrazeko Zuzendaritzak (IMAZ) agiriren bat falta dela edo agirien edukia ez dela nahikoa irizten badio, interesdunari hamar eguneko epea jarriko dio falta diren agiriak, argibideak eta datuak aurkez ditzan. Horrela xedatu



da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean.

Aldiz, behar diren agiri guztiak aurkeztu direla eta horien edukia nahikoa dela irizten badio, edo bestela, antzemandako akatsak zuzendu eta gero, IMAZek agiriok aztertu eta ebaluatu egingo ditu eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko baldintza zehatzak idatziko ditu. Baldintza horiek SNKri bidaliko dizkio, Osoko Bilkurak onets ditzan, eta interesdunak aurkeztutako dokumentazioaren ale bat erantsiko du.

SNKren irizpena jaso eta gero, IMAZek instalazioaren funtzionamendua baimentzeko ebazpena emango du eta bertan azalduko ditu instalazioaren ustiatzaileak nahitaez bete beharko dituen arau zehatzak. Ebazpena interesdunari jakinaraziko dio eta ale bana bidaliko die SNKri eta Ekonomia Ministerioko Energia Nuklearraren Zuzendariordetzari.

Instalazio erradioaktiboaren titularrak, baimena emateko ebazpena jaso eta gero, instalazioa eraiki eta muntatu ahal izango du, indarra duten araudietan xedatutakoak eta baimena emateko ebazpenean ezarritako baldintza zehatzak betez. Gero, instalazioa abian jarri ahal izango du, IMAZek instalazioa abian jar daitekeela jakinarazi beharrik ez dagoen kasuetan, 7. idatz-zatian adierazitakoaren arabera.

6.- INSTALAZIOAN ALDAKETAK EGITEA, TITULARRA ALDATZEA EDO ERRADIAZIO-ITURRIAREN AKTIBITATEA HANDITZEA

Baimena beharko da, halaber, instalazio erradioaktiboaren titularra aldatzeko, instalazioaren taxuera eta ustiapenaren baldintzak aldatzeko, baimen-ebazpenean ezarritako baldintza teknikoak ukitzen dituen edozein aldakuntza egiteko eta erradiazio-iturriaren aktibitatea handitzeko. Instalazio berrirako funtzionamendu-baimena eskatzen denean egin behar diren izapide berberak egingo dira.

7.- INSTALAZIOA ABIAN JAR DAITEKEELA JAKINARAZTEA

SNK-k ezarritako irizpidearekin bat etorriz, instalazioa abian jar daitekeelako jakinarazpena beharrezkoa izango da inskripzio berria eskatzen den aldietan, eta bai funtzionamendu-baimena ematerakoan ezarri ziren arau tekniko zehatzetan eragin nabarmena izango duten aldaketak egin behar direnean ere, haien azterketan eta ebaluazioan lortutako emaitzaren arabera.

Horrelakoetan, instalazioaren titularrak, behin funtzionamendu-baimena eskuratuta, eta instalazioa lanerako prest daukala, hura abian jartzeko baimena eskatuko dio IMAZi. Teknikariak instalazioa ikuskatzera joango dira eta ikuskapenaren emaitza SNKri jakinaraziko zaio.

SNK-k instalazio hori segurtasunez erabil daitekeela irizten badio, horren berri emango dio IMAZi eta honek instalazioa abian jar daitekeela jakinaraziko dio titularrari, jakinarazpen-agiria bidaliz.

Ikuskapenetik instalazioaren segurtasun nuklearra eta erradiazioetarako babesak behar bezala bermatzerik ez dagoela ondorioztatzen bada, edo akatsak antzematen badira eta baimenaren titularrak ez baditu akats horiek zuzentzen horretarako ezartzen dioten epean, IMAZek egoki diren neurriak hartuko ditu.

Gorago aipatu diren kasuetan, instalazio erradioaktiboak inola ere ezin izango dira erabili harik eta IMAZek haiek abian jar daitezkeela jakinarazteko bidalitako agiria eduki arte. Jakinarazpen-agiri horrek titularrari ahalmena ematen dio instalazioa erabiltzen hasteko.

8.- TXOSTENAK

Instalazioaren titularrak, baimena jasoz gero, IMAZi eta Segurtasun Nuklearraren Kontseiluari aldi berean txosten hauek aurkeztu beharko dizkie:

- a) Urteroko txostena, lehen hiruhilekoan aurkeztu beharrekoa. Bertan honakoak jasoko dira: instalazioaren jardueraren nondik-norakoak eta gorabeherak, laborazalduta; eragiketen egunkariaren laburpena; dosiak neurtzeko kontrolen emaitza estatistikoak; eta segurtasun nuklearraren edo erradiazio ionizatzaileetarako babesaren ikuspegitik instalazioaren ustiapen edo funtzionamendua ebaluatzeko balio duten gainerako datuak.
- b) Segurtasun edo babes erradiologikoan eragina izan dezaketen anomalia guztiei buruzko txostenak, eta istripuren bat gertatzen bada, istripuari buruzko txostena, istripuaren inguruko zehaztasun guztiak jasoko dituenak.
- c) Europar Batasunaren barruan substantzia erradioaktiboak herrialde batetik bestera eraman behar direla jakinarazi egin behar da, hala denean, eta horrelako garraioetarako baimena eskatu behar da, EURATOM Araudiarekin bat etorritik (1.493/93 Berriematea, 1993ko ekainaren 8ko Kontseiluarena).
- d) Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak berariaz txostenak eskatu ahal izango ditu instalazioaren segurtasun nuklearrari buruz edo erradiazioetarako babesari buruz.

Instalazio baimendunaren titularrak, instalazioari segurtasunezko muga gainditzea eragozten dion babes-sistemaren bat behar bezala ez dabilela ikusten badu, lehenbailehen horren berri eman beharko die, aldi berean, IMAZi eta Segurtasun Nuklearraren Kontseiluari. Horrelakoetan interesdunari matxuraren gaineko txosten zehatza eta ebaluazioa eskatu ahal izango zaizkio, instalazioa berriro abian jartzeko baimena eman aurretik.

9.- APARTEKO NEURRIAK

Arriskua ageri-agerikoa den kasuetan, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, eta bai Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak edo kontseilu horretako ikuskatzaile eskudunek ere, zeinek bere eskumen-eremuan, instalazioko obrak, funtzionamendua edo lanak berehala bertan behera utz daitezela agindu ahal izango

dute. Horren berri emango diote Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, eta aginduaren zioak azalduko dizkiote.

10.- ITXIERA-ADIERAZPENA

10.1. Itxiera-adierazpena eskatzea

Instalazio erradioaktiboaren titularrak itxiera-adierazpena eskatu behar du instalazioa eraitsi aurretik.

Itxiera-adierazpenaren eskabidea IMAZen aurkeztuko da, eta agiri hauen bina ale erantsiko zaizkio:

- a) Itxierari buruzko azterlan teknikoa, instalazioaren ezaugarriak kontuan harturik egina. Material eta hondakin erradioaktiboen eta erradiazio ionizatzaileak igortzen dituzten aparatuen inbentarioa jasoko da agiri horretan. Material eta hondakin horiek nora eramango diren eta instalazioa eraisteko eta, behar izanez gero, kutsagaiez garbitzeko zer-nolako neurriak hartuko diren adierazi behar da.
- b) Ekonomi txostena, itxieraren kostua eta itxiera finantzatzeko bideak azalduko dituena.

IMAZek espedientea aztertuko du, eta agirietan akatsak aurkitzen baditu horiek zuzentzeko aginduko du. Azkenik, espedientea SNKri igorriko dio.

10.2. Itxiera

Segurtasun Nuklearraren Kontseiluaren kreditazioa duen ikuskatzaileak egiaztatu egingo du instalazioan ez dagoela ez substantzia erradioaktiborik ez erradiazio ionizatzaileak igortzen dituen ekiporik, eta instalazioaren kutsaduraren analisien emaitzak aztertuko ditu. Ondoren, bidezkoa bada, baieztuko txostena emango du.

Orduan Industria eta Meategiak Administrazio Zuzendaritzak itxiera-adierazpena emango du.

11.- TASAK

Instalazioen titularrek maiatzaren 4ko 14/99 Legean (EAO, 99-05-05) adierazitako tasak ordaindu beharko dituzte. Tasen zenbatekoa kasuan kasuko zerga-egitatearen eta zerga-tasaren arabera zehaztuko da.

12.- ARAU-HAUSTEAK

Instalazioen titularrei zehapena ezarriko zaie arau-haustea egiten badute, alegia, baimenaren baldintzak edota segurtasun nuklearraren eta erradiazioetarako babesaren arloko araudietan ezarritakoak betetzen ez badituzte. Zehapenak direla-eta, Energia Nuklearrari buruzko apirilaren 29ko 25/1964 Legearen XIV. kapituluaren xedatutakoa



aplikatuko da, zein Sektore Elektriakoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren bidez aldatu baitzen.

ERANSKINA: DATU JAKINGARRIAK

Aurreko informazio hori eskura dago web orri honetan:

www.euskadi.net/vigilanciaradio

Bigarren eta hirugarren kategorietako instalazio erradioaktiboen inguruko izapideak egiteko agiriak, 2002ko apirilaren 15etik aurrera, helbide honetara bidali behar dira (beti ere, agiri bakoitzaren **ale bi**):

INDUSTRIA ETA MEATEGIAK ADMINISTRATZEKO ZUZENDARITZA.

Instalazio Erradioaktiboen Zerbitzua

Donostia-San Sebastián kalea, 1

01010 – VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945.01.82.15

Faxa: 945.01.99.78

E-maila: Josemi-munoz@ej-gv.es